

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Leioako Udala****Leioako Udaleko Alkatetzari laguntza eman behar dioten Kontratazio Mahai-ko kideak izendatzea.**

Alkateak, 2018ko martxoaren 21eko, 818 Dekretuaren bidez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa: Honako hauek indargabetzea, ebazpen honen datatik aurrera: Udal Gobernu Batzordearen 465 Erabakia, 2009ko abenduaren 22koa, zeinak onartzen zuen Kontratazio Mahai Orokor bat osatzea; eta 2013/2015 Dekretua, 2015eko irailaren 10ekoa, Udaleko Kontratazio Mahaietan talde politikoetako kideak izendatzeari buruzkoa (hitzarekin baina botorik gabe).

Adierazitako egunetik aurrera, Alkatetzaren laguntzarako Kontratazio Mahaia jarraian adierazitako baldintzetan geratuko da.

Bigarrena: Kontratazio Mahaiak lagunduko du soilik legez nahitaezkoa den kasuetan, hau da, SPKLren 326.1. artikuluan jasotakoetan.

Dena den, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan eta SPKLren 159.6. artikuluan jasotako prozeduran, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du bertan Kontratazio Mahaiak parte hartzea, kontratazio espedientea irekitzeko eskatzen duen unitate sailaren proposamen justifikatua aintzat hartuta. Inguruabar hori berariaz jasoko da dagokion kontratazio espedientearen baldintza ekonomiko eta administratiboen pleguan.

Mahaiaren zereginak izango dira SPKLren 326.2 artikuluan adierazitakoak, kontratazio organoan egin daitekeen eskuordetzea gorabehera.

Hirugarrena: Izendatzea Kontratazio Mahaiko kideak, Alkatetzari laguntza iraunkorra eman beharko diotenak haren eskumeneko kontratazio espedienteetan:

— Presidentea:

- Titularra: Alkatea.
- Ordezkoa: Eskuordetzen duen zinegotzia.

— Kideak:

- Titularra: Idazkari nagusia.
- Ordezkoa: Idazkari nagusia ordezkatzeko dekretuaren araberakoa.
- Titularra: Udaleko kontu-hartzailea.
- Ordezkoa: Udaleko kontu-hartzailea ordezkatzeko dekretuaren araberakoa.

— Idazkaria:

- Titularra: Kontratazioaren ardura duen administrazio bereziko teknikari letradua.
- Ordezkoa: Kontratazioaren ardura duen administrazio bereziko teknikari letradua ordezkatzeko dekretuaren araberakoa.

Karguarekin edo lanpostuarekin identifikatutako Kontratazio Mahai iraunkorreko kideak, bat etorriko dira unean horien titular diren pertsonekin.

Kontratazio Mahaiaren berrikuntzarako lehia- zein elkartze-elkarrizketako prozeduretan, Kontratazio Mahaiak aurretiaz adierazi bezala eratuta egongo da; horrez gain, berrikuntzarako lehia edo elkartzea eragingo duen gaian bereziki kualifikatutako pertsonen hartuko dute parte. Hori guztia SPKLren 327. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Laugarrena: Izendatutako Kontratazio Mahaiaren osaera argitaratzea Leioako Udaleko Kontratatzailearen Profilean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Leioan, 2018ko martxoaren 23an. — Alkate andrea, M.^a Carmen Urbieta González